

Kike Diez de Ultzurrun Sagalá

Batzarre

ETaren balizko desagerpenak sekulako eragina izanen du arlo aunitzetan; besteak beste, mapa politikoan, jakina. Egia erran, sekulako eragina izaten ari da. Bertzenaz, begira gauzak nola dauden Nafarroa Bain. Azkenaurreko albistea izan da Batzarre ez dela hurrengo hauteskundeetan NaBai barruan egonen eta, azkena, IUrekin batera aurkeztuko dela. Edo hala ematen du, behintzat. Baina, azken erabakia ez omen dago hartua; hau da, Batzarreko kideak herriz herri eztabaidatzen ari dira eta batzar nagusi bat edo bi eginen dituzte azaroaren erdialdean (bata Iruñean, eta beste, Tuteran), zer egin erabakitzeko. Indarrak nola dauden ezin erran, baina egunotako barne bileretan denetarik iritziak entzuten dira. Zuzendaritzak, bere aldetik, dio NaBaitik alde egitea beste biderik ez dietela utzi gainerako alderdiek; Aralarrek, bereziki. Gauzak kanpotik ikusita, ordea, dena azkarregia doa; hau da, Batzarreko zuzendaritza zabalak bestelako bideak aztertzea erabaki zuenetik egun gutxi-gutxira, IUrekin bilera bat egin eta berehalakoan ados jarri dira, Parlamentuan, Iruñean eta ahalik eta herri gehienetan elkarrekin aurkezteko, betiere bi taldeetako kideen arteko harremanak gaiztotuak ez dauden tokietan (Antsoainen, konparazio batera). Gai batzuk adostu dituzte, gainera: identitate guztiak errespetatu beharra, euskararen ofizialtasuna eta erabakitzeko eskubidea. Hori guztia bilera bakar batean, omen, eta zeinekin eta IUrekin. Dena den, zuzendaritzak berak Batzarreko kideei aitortu dien bezala, “harremanak” lehenagokoak dira. Nonbait, Nafarroan izen handi samarra duen pertsona batek bitartekaritza-lana egin zuen joan den utarrilean, bi taldeen artean: ondotik, udaberrian beste bilera egin zuten, eta abuztuaren, dokumentazioa eman zioten elkarri, koalizio berriak izan



JOSU SANTESTEBAN

beharko lituzkeen oinarrien inguruan. Baina, nola halako harremanak lehenagotik ere hasi ziren; 2007ko udatik aurrera, zehazki: bai IUrekin, bai PSNko kritikoe-kin.

Horrez gain, kontuan hartu behar da, Batzarreko sektore batek (heren batek edo) ez duela inoiz begi onez ikusi Nafarroa Bain sartzea; tartean, zuzendaritzako kide zenbaitek. Haien idazkietan, gainera, argi eta garbi erraten da Batzarreko aukera ezker *ez-nazionalistaren* ondoan dagoela; batez ere, ETaren balizko desagerpenaren ondotik etorriko lituztekeen egoera berrian. Funtsen jarrera hori bera dago ESK sindikatuaren barruko zatiketan. Batzarreko buru horiek, gainera, beste kontu bat darabilte kaskoan aspaldixkotik: Nafarroa Baik argiago erakutsi beharko liokeela aurkakotasuna ETaren jarduerari, afera horretan koalizioa epelegia izan delakoan. Joan den udaberrian, gainera, Ioseba Ezeolaza Batzarreko parlamentarioak Biktimen Legearen aldeko botoa eman zuen nafar Parlamentuan, NaBairen jarrera hautsita. ETak eragindako biktimen aldeko legea da hori, gainerako biktima guztiak (eta ez dira gutxi, gero!) bazterrean eta ahanzturan uzten dituen. Ezeolazaren jarrerak bazterrak astindu zituen NaBaiko botoemaile aunitzen artean (Batzarreko kide askoren artean ere bai) eta zerbait hautsi izanaren sentsazioa zabaldu zen.

Batzarreko dio Aralarrek eta EAk aldatu egin dituztela NaBaiko oinarriak, bai eta barne-antolaketa ere, talde txikien kaltetan, eta besteek diote Batzarre aldendu dela Nafarroa Baitik eta ez duela leial jokatu, eta aspaldian zerabilela IUrekin batera aurkezteko asmoa. Batzarreko kideen erabakia bata ala beste izan, dena den, auskalo zer gertatuko den NaBaiko azken osaketari buruz hemendik hauteskundeak bitartean. ■

Batzarreko dio Aralarrek eta EAk aldatu egin dituztela NaBaiko oinarriak, bai eta barne-antolaketa ere, talde txikien kaltetan, eta besteek diote Batzarre aldendu dela Nafarroa Baitik eta ez duela leial jokatu, eta aspaldian zerabilela IUrekin batera aurkezteko asmoa